

# t tipi t tapa

2006ko abenduaren 21a • XXVI. urtea



## Bertiz Partzuergoa bidegurutzean

Bera eta Lesakako udalak eta elkarte batzuk atera diren arren, oraingoz lanean segituko du Partzuergoak. Urtarrilaren 10eko bilera erabakiko da etorkizuna.

04



## Bortzirietako eskuz binakako txapelketa

Azaroaren 26an jokatu ziren Berako Eztegarra pilotalekuan Bortzirietako eskuz binakako pilota txapelketaren finalak. Orain barna hasiak dira.

36

# Dantza taldearen Egunak 25 urte bete ditu Baztanen

03







# ORDOKI

altzariak

Larunbat goiz eta  
arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bittiria 26  
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27  
Tfnoa: 948 63 77 80  
LESAKA

BITXIDENDA



ERLOJUNDENA

- Bitxiak gustatzen bazaizkizu..... CAROL BITXIDENDA
- Erlojuak nahiago dituzula..... CAROL BITXIDENDA
- Zilarra gehiago atsegin duzula..... CAROL BITXIDENDA
- Fotograbatutako txapak maite dituzula..CAROL BITXIDENDA
- Epeka ordaindu nahi duzula..... CAROL BITXIDENDA
- Moldaketa mota guztiak,zatoz eta eskatu aurrekontua

*Zorionak eta urte berri on!*

Juan de Arana, 9 · Tel: 943 61 38 04

20302 IRUN

MAMUT Merkataritza zentrua · Tel: 943 49 35 29

20180 OIARTZUN



## DATUAK...

- 25 urte bete dira aurten Baztango dantzariak beraien eguna ospatzen dutela. Lehenik Arizkungo Elkartasuna hasi zen egun hori antolatzen, Mañoli Irungarai hildako taldekidearen omenez. Gero, Baztango dantzariak segitu zuten ekitaldiarekin eta aurten, berriki hildako Faustino Goñi gogoratu dute.
- Mari Cruz Goñi arizkundarra, Baztango Dantzariak taldeko sortzaile, dantzari eta irakaslea da. Baztanen ez ezik, inguruko hainbat herritan ematen ditu dantza klaseak.



Mari Cruz GOÑI *Baztango dantza irakaslea*

ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

## «Garai batean baino aisa makurrago dantzatzan da orai»

Aitor AROTZENA

**Nola hasi zineten dantza taldearen eguna antolatzen?**

Duela 25 urte, Arizkungo Elkartasuna dantza taldean ari ginen eta hildako taldekide baten omenez Elizondon zerbait egin behar genuela pentsatu genuen. Eta zer egin behar genuen? Ba, dantzatu! Orduan hasi ginen taldearen eguna antolatzen eta orai arte segitu dugu. Elkartasuna taldetik atera eta herrietan dantzak erakusten hasi ginen, Salaburu, Juan Cruz Iriarte, Mikel Iriarte, Jose Antonio Istilart, ni... Taldearen eguna guk antolatutako zerbait zenez, guk egun horrekin segitu genuen. Harreman handia genuen Baigorriko jendearekin eta Nafarroaren Egunera ginen eta hortik sortu zen Baztango Dantzariak taldea.

**Hogeitabosgarren urteurrena ospatzeko zerbait berezia egin duzue edo egiteko asmoa duzue?**

Aunitz jende pasatu da taldetik: lehenbizitik Maurizio Elizalde, Felix Iriarte, Mariano Izeta, Manolo Biguria... jende ezaguna pasatu da. Duela 25 urte hil zen Mañoli Irungarai, tartean

**«Ez nago euskal dantzak modernizatzearen kontra, baina gehienetan betiko pausuak errepikatu eta itxuraldatzen dira»**

bertz hainbat gan dira eta aurten Faustino Goñi hil zauku, betitik dantza taldearekin arras lotua. Zerbait berezia egin nahi genuen eta duela 25 urte dantzatzera bildu ginenak gonbidatu genituen Elizondora: Otsagi, Urdiñarbe (Zuberoa), Lizarra eta Baigorrikoekin bildu ginen, denak adinekoak. 25 urte zaharragoak gara denak, baina arras polita atera zen!

**Hainbertze urtez dantza irakasle izan zara... Zenbatsu ikasle pasatu izanen dira zure eskuetatik?**

Ez dut kalkulurik egin, baina milatik nahiko goiti seguru! Momentu batzuetan, Baztanen 300 dantzari ateratzen ginen plazara. Iparraldean ere ibilia naiz, Etxalarren, Igantzin... Sunbillan afizio handia dago eta helduen eta haurren taldeak ditut. Aunitz agertzen dira entsaioetara eta finak dira.

**Euskal dantza zer egoeran dago? Jendeak badu dantzarako afizioa?**

Orain momentuan arras apala dago. Baina normala da, dudarik gabe makurrago dantzatzan da, baina kantatu ere makurrago kantatzen da. Lehen igandero dantzatzan zen eta ez zen deus ere gehiago! Kantuak ere berdin, bazkaria edo afaria akitu eta kantatzen hasten ginen. Orainork ez daki kantatzen. Denborak aldatu dira eta hori onartu beharra dago.

**Ohiko euskal dantzak erakusten dituzu edo dantza modernoagoak ere emateko prest zaude?**

Ni nahiko berezia naiz. Gauza moderno horiek, onak baldin badire, ez dut problemarik erakusteko. Baina ez dut ikusten sobera gauza onik! Euskal dantzan bada jende hagitza ona, kontatuak! Baina ikasten duena, normalean ez da bere maisua bezain ona. Nik nahiago dut, gutienez hasiteko, betiko dantzak. Euskal dantzei eta ohiturei buruzko oinarria izan behar dugu, nongoak diren... Ni ez nago modernizatzearen kontra, badira gauzak aunitz gustatzen zaizkidanak, baina gehienetan egiten dena zera da: betiko pausuak errepikatu, bertze itxura bat eman eta kitto!





ARTXIBOKOA

2005eko irailean, Onbordiko tuneleko argien inaugurazioa egin zen, Bidasoako trenbidean. Cederna eta Turismo sailko ordezkarekin batera, Juan Fermin Mitxelena Lesakako alkatea, Andres Etxenike Bertiz Partzuergoko presidentea eta Deñe Abuin Lesakako zinegotzia ageri dira. Bertze garai batzuk ziren Partzuergoan.

ZENBAIT UDAL ETA ELKARTEK KONTSORTZIOA UTZI DUTE

# Bertizko Partzuergo Turistikoaren etorkizuna bidegurutzean

**Duela hamalau urte, 1992ko abenduan sortu zen Bertizko Partzuergo Turistikoa, Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Urdazubi eta Zugarramurdiko herri eta bailaretako turismoaren garapena bultzatzeko. Bertan, inguru honetako 18 udal eta 8 elkarte (landa etxeak, hotelak, kanpinak, jatetxeak, ostatuak, artisauak, merkatariak eta zerbitzuak) biltzen ziren oraintsu arte. Baina gaur egun, Partzuergoa bidegurutzean dagoela erraten ahal da. Bera eta Lesakako udalek Partzuergotik ateratzea erabaki dute, funtzionamendu egokia ez duelakoan eta bertze zenbait herri ere bide bera segitzen ahal dute. Elkarte batzuetan ere ez daude gustora eta bere gisara funtzionatzen hasiak dira. Honela, Baztan, Bera eta Doneztebeko merkatariak bakoitzak bere elkarte sortu du. Lesakan ere horretan ari dira lanean. Abenduaren 14ean ez ohiko batzarra egin zuen Bertizko Partzuergo Turistikoak, etorkizunerako lan ildoak finkatzeko.**

**Aitor AROTZENA**

Lesakakoa izan da Partzuergotik ateratzea erabaki duen lehendabiziko udala. Azaroaren 24ko batzarrean hartu zuen erabakia ahobatez eta heldu den urte hasieran gauzatuko da irteera. Berako udalak ere aste honetan hartzekoa zuen erabakia eta Sunbillakoak ere seguruenik bide bera hartuko du, Paco Petrirena zinegotziak jakinarazi digunez.

Deñe Abuin, Lesakako Kultura eta Turismo zinegotziak aipatu digunez, alde publikoaren eta pribatuaren irizpideak uztartzen ez dute asmatu, eta ez dugu denendako onura berdina lortu. «*Saiatu gara segitzen eta gauza berriak sortzen, baina agian egitura-tua dagoen moduarengatik, edo jendea ilusiorik gabe dagoelako, ez du*

funtzionatzen». Halere, Lesakako Udalak Bertizekin batera lan egiten duela argitu du Deñe Abuinek, baita Txingudi eta Iparraldearekin ere.

Lesaka eta Berak Partzuergotik ateratzeko eman den bertze arrazoi bat, jartzen duten dirua ez dela gero Bortzirietara bueltatzen izan da. Herri bakoitzak duen bizilagun kopuruaren arabera ordaintzen dio Partzuergoari. Beraz, Baztan da gehien ordaintzen duena eta gero, Bortzirietako bi herri nagusiak. Aurten Berak 12.000 euro ordaindu ditu eta Lesakak 9.000.

Ilbeltzar Vicente Arotzena, Bertizko Partzuergo Turistikoko presidente orde eta Arantzako alkatearen ustez, aldiz, «*Bortzirietatik iduri du Bertizek gehiago egiten duela Baztango propaganda, baina ez da hori. Filme laburrak jartzen dira Elizondon, jartzen dira Donezteben, Beran eta Lesakan. Niri ere ez zait kortoan asuntza gustatzen, baina aldeko botu eman nuen, kontsorzio guziri mesede ekartzen ahal dion neurrian konforme nintzela*». Herri ttikietan ere zerbait egin beharko litzatekeela uste du Arotzenak: «*Adibidez, aurten dantza talde bat ekarri Arantza eta Igantzira; heldu den urtean Etxalar eta Sunbillara*».

Ilbeltzaren 10ean berriz ere biltezkoea da Bertizko Partzuergo eta orduan zehaztuko da etorkizunean zein herrik eta zein elkartek segituko duten kontsorzioan.



## Deñe ABUIN Lesakako zinegotzia

### Zergatik hartu duzue Bertizko Partzuergotik ateratzeko erabakia?

Gure kasuan, trenbidearen moldatze lana izan da erabakia hartzeko behar genuen azken ttantta, gaia ez baita seriotasunez eraman. Lesakako Udalak moldatu zituen Tellegi eta Onbordiko tunelak, zola berritu zuen, argiak para-

tu, baina ondotik bertze deus ez dela egin ikusten dugu. Denak elkarrekin egin behar genuela errazten, kontsorzioaren bidez, baina ez da deus aintzindu. **Halere, itxuraz indar gehiago eginen da elkarrekin bakoitza bere aldetik joanda baino...** Kanpotik, baina lan egiten dugu Bertizekin, baina baita, Iparraldearekin eta Txingudirekin batera ere. Gehiago zabaldu behar garela argi dugu. Hori alde batetik, eta gero, beste aldetik, Lesakak Endarlatsa eta Onbordi arteko trenbide zatiarekin segituko du.

### Momentu egokia aukeratu al duzue Bertiztik ateratzeko?

Kreditoa ordaindu dugu eta ez dugu deus zor. Zerbait berria egiteko garaia orain da, jendeak ilusioa baldin badu hartuko du

bertze kreditu bat eta eta-pa berri bat hasiko da, baina ez dut uste. Partzuergoak aitzinera segitzeko arrazoa burugogortasun politikoa da. Bertiztik ateratzea ez da izan kapritxo bat edo haserrealdi bat, honek horrela ezin du segitu. Eta ez gara gu horretaz konturatu garen lehenbizikoak izan. Urtero kuestionatzen da partzuergo, baina lau urtez 18 udaletako politikoak pasatzen dira eta inork ez du urratsa eman nahi, hurrengoak emanen du erraten dugu. Ez dakit zenbat diru joan den erreflexio jardunaldietan, plan estrategikoetan, baina hori gero ez da aurrera eramaten, ez du deustarako balio. Bertizek hagitz gerente onak izan ditu, baina azkenean ilusio galdu dute eta joaten dira, ezin dutelako lanik egin.

*“Bertizko Partzuergo Turistikoak burugogorkeria politikoarengatik eginen du aitzinera”*

## Vicente AROTZENA Bertizko Partzuergoko presidente orde

### Partzuergoaren lanarekin konforme ez eta ateratzea erabaki dute zenbait udal eta elkartek... Zer iruditzen zaizu?

Partzuergoak egiten duen lana neurtzea zaila da. Nik kontsorzioari euro bat eman, eta bueltan bi etorriko zaizkidala uste badut, irizpide horrekin deskuidatua nago. Zonaldea bezala pentsatu behar dugu, Nafarroako Gobernura bakarka joaten baldin bagara ez gara deus ere. Zerbait lortu dugu denak elkarrekin joan garenean, hor dago karreteren adibidea.

Madriren trenbidearen gaia-rekin izan ginenean ere erraz ziguten %100 emanen zigutela, ikusten zutelako eskualde osoak bat egiten zuelako proiektuarekin, eta gainera Gipuzkoarekin eta Iparraldearekin elkartzen zela. Orain hori dena bota behar baldin badugu!

### Kontsorzioak ez duela funtzionatzen eta proiektuak geldirik daudela ere aipatu da...

Orain arte Kontsorzioak egin duen proiekturik handiena eta onena zona guzira, trenbidea, hor dago. Eta nik

hori ez dut utziko, Madriletik ez badute erraten zereginik ez dugula. Gai honen inguruan gaizki ulertuak ere izan dira. Sunbillako base-ritarrei saldu zaie hortik ezin izanen dutela pasatu eta hori ez du inork erran. Akaso ailegatuko da traba batzuk paratzea, baina ez baserritarrei, haiek beti irekia izanen dute edo irekitzeko modua. Bertzeek ezin izanen dugu bide horretan ibili. Zeinek erran du baserritarrek ezin dutela bide horretan ibili? Bertizko Partzuergoaren funtzionamenduari buruz, bakoitzak bere iritzia izanen du. Orain, ez duela funtzionatzen guk nahi dugun bezala, hori zer da?.

*“Euro bat ordaindu eta bueltan bi nahi baditugu, horrela ez goazi inora”*

**ttipi-ttapa aldizkaria**

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.net

info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidente:** Pello Apeztexea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Peio Zestau, Arkaitz Mindedia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia eta Sandrine, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakei Amigo, Irtxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria	30 €
Espainia	30 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	50 €
Europa	50 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	25 €



**Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

### Euskal irratien prentsa agiria

Euskal Irratiak Federazioak (Irulegiko Irratia, Xiberoko Botza, Antxeta Irratia eta Gure Irratia) bere elkartasuna adierazi nahi die Gure Irratiko administrari, laguntzaile eta bereziki 9 langileeri, bai eta Uzta-ritzeko egoitzan erregularki lan egiten zuten Euskal Irratietako 5eri, sutearen ondorioz, beren lan tresna ke artean desagertzen ikusi baitzuten. Antxeta Irratiko egoitza joan den apirilaren 16an uholdeek desegin ondoren, orain, sute batek kasik erabat kixkali du Gure Irratiaren egoitza berria Uzta-ritzetik.

Bi kolpe latz izan dira, bai hunkituak izan diren irratientzat, baina ere, Euskal Irratiaren proiektuarentzat, ondorioak, eguneroko programaketan agertzen direlarik egun hauetan, Gure Irratiako ekipak bere ekarpenak ezin baititu egin eta Antxeta Irratiakoak behin behineko lokaletan baitira oraino.

Euskararen kontrako bi kolpe azkar, Lapurdin, bere eguneroko biziraupenerako baitzepadakoak diren bi tresna, uhinetatik desagertzen ikusten baititu. Euskara, egoera erabat prekarioan bizi den hizkuntza, desagertzearen mugetan dena, UNESCOk finkatuaren arabera, ofizialtasun eza eta bi belaunalditako familia transmisioaren hausdura dela medio.

Federazioaren geroarentzat zinez delikatu den unean heldu dira bi kolpe hauek. Federazioak dituen 35 langile-

etatik 9, gazte enpleguen dispositiboan lagunduak baitira eta 2007-2010 epean desagertzekotan, laguntza hauek bururatzen ari baitira.

Noiz arte iraunen du euskarak Ipar Euskal Herrian halako egoera limitean? Une hauetan egiten dugun galdera nagusia da, berriz ere ezbeharrak hunkitu gaituelarik.

Une zail hauetan, gure entzule eta Euskal Herri osoko euskaltzale guziera deia zabaldu nahi diegu Gure Irratiko langileek igorriko SOS mezu larriarekin bat egin eta ekonomikoki lagundu ditzagun.

Elkartasun adierazpenak agertu dizkiguten botere publiko desberdinak eskertu nahi ditugu ere, espero dugularik, zinez laster irratien aldeko ekimen konkretuak bilakatuko direla. Gure Irratiko langileek lehenbailehen itzuli behar dute lanerat, profesionalak baitira eta lan horretan, botere publikoak, ahal bezain laster bere geroari buruzko segurtasun ekonomikoa ekarri behar die.

### EUSKAL IRRATIAK.

### N-121?

Denak prisaka gabilta eguneroko, lasterka lanera, erosketak egitera, zinera, hara eta hona, bañan errepide honetan ilarak eta istripuak daude aunitzetan, euria egiten duenean batez ere, errepide "txarra" delako. Horregatik errepide berri bat egitea erabaki da, errepide seguru eta hobeago bat,

istripuak eta ilarak guttitzeko. Horregatik berdin du zuhaitzak botatzea, mendia zulatzea, erreka zikintzea, bertako animaliak etxeik gabe uztea eta bertze aunitz hiltzea. Beharrezkoa baita errepide hori. Gure inguruan daukaguna, leku hortako edertasuna ikusteko gai ez dena itsu dago! Bañan errepide berria behar dugu! Bañan iritsiko da egun bat urrun joan gabe, lasai eseri nahiko duzuna paisaiaz eta inguruaz gozatzeko, arnasteko eta txorien kantak aditzeko edo isiltasunaz gozatzeko, bañan orduan guartuko zara leku zoragarri hori errepide bat egiteko suntsitu dugula. Inguruarekiko errespetagarriagoak diren bertze aukera batzuk kontutan hartu ez ditugulako. Orduan beranduegi izanen da.

Bide horretako soluzio bat behar dela argi ikusten da, bañan arazoa ez da errepide txarra dela. Kamioi gehiegi ibiltzen dire bide horretatik eta ilarak sortzen dituzte eta gure ezinegonak eta gure kotxe azkarrak kamioiak antzintzera eramaten digute. (...) Tramu txar horiek moldatzea soluzio bat izan daiteke, bañan baita ere erran behar da aunitzetan gure erruz izaten direla istripuak, beroan ondorioz lokartzaren garelako edo despistatu egin garelako... Horregatik konszientek izan behar gera kotxea hartzea arrisku bat dela eta gu gidatzeko moduan ez gaudenean (logaleatik adib.) guretzat eta gainontzekoentzat arrisku bat garelako. Aunitz daukagu ikasteko, gero eta kotxe az-

karragoak egiten dituzte, zertarako? (...) Arazo honi irtenbidea emateko haiek egindako ikerketa bañan aunitzez ere ikerketa sakonagoa egin behar da. Bañan betiko moduan joera errazaren alde jo dugu ondorioak neurtu gabe. Gure erosotasunagatik, gure bizi erritmoagatik ama lurrari eta gainontzeko bizidunei errespetua galdu diegu. Gure biziak gehiago balioko balu bezala. Guztioi axola digu gure biziak!

(...) Gure ingurua gehiago zaindu behar genuke eta kontutan euki, eta ez komeni zailgulako, errespetua merezi duelako eta berdin gainontzeko bizidunekin. Gure arazoak guk sortu ditugu eta ez haiek eta ez naturak ez dute gure hanka sartzenegatik ondorioak pairatu, ez jasan behar! Gainontzeko animalietatik inteligentziak desberdintzen omen digu, eta nik diot zertarako balio dia jakitea 2+2 lau direla gero ez bagera gai onarrizkoena, bizia, bizitza errespetatzeko eta gure arazoei irtenbide zentzudunak bilatzeko. Gauzak ez genituzke horren erraz hartu behar, gauza guztiak bere ondorioak daukate eta erritmo honetan segituz gero munda errepide zaharrez, fabrikaz... betetako zabortegi bat izanen da eta gu pozik haurren moduan errepide berriarekin, eta aspertzen garenen bertze bat eskatuko dugu edo UPN-ek ekarriko digu gabonetako! (bere sakelak betetzeko).

**Itziar**

**33441743L**





# Landibar



ZENTRO KOMERTZIALA • (0034) 948 599 400

**DANTXARINEAko**

Landibar

**IBARDINgo**

Venta Peio

**BEHOBIAko**

Marionnaud-en

**USAIN GOXOEN TXOKOA**

aurkituko duzu.

Markarik ezaqunenetan  
aukera zabala



M<sup>o</sup> Juncal Landibar, 13 B (Behobia) • (0034) 943 631 011

ROCHAS

CHRISTIAN DIOR

BIOThERM

CLARINS

CHANEL

GUERLAN

YVES SAINT LAURENT

PACO RABANNE

ThERRY MUBLER

ARMANI

## VENTA PEIO



IBARDIN • (0034) 948 630 719

*Eguberri eta egun  
berezi hauetan  
gustoko opariak  
egin eta jasatzeko*

**EUSKAL HERRIKO PREZIORIK HOBERENAK**



maria  
948450922

saioa  
636267369

*zorianak eta  
ute berri on!!*

**maria ileapaindegia**

# Kotoi

- Kortinak
- Estoreak
- Neurria

egindako lanak

- Etxerako ehungintza osagrraik

*eguberri on !!*

Bidasoa, 14 • BERA  
Tfnoa: 948 631 660

# IPINGI

arropadenda

- Arropa formalak eta informalak
- Konplementuak
- Bitxiak
- Eskulangintzako materialak

Santiago 88, Elizondo • Tfnoa: 948580939

## IBARROLA

Haurrendako arropa  
0-14 urte

Ferrisia kalea 6 • Doneztebe  
948 450 463

## EGUBERRIETAKO OPARIAK

adin guztietarako

Parrokia, 17 • DONEZTEBE • 948 450289

## FANTXIKE

Mertzera • Opariak • Lentzeria  
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA

*zerbat justuola  
bodiaren  
Fantxiak!*

Jaime Urutia 15, ELIZONDO Tfnoa 948 560 312

Maurizio eta Felix plaza ondoan  
ELIZONDO • 948 581 822

# ESKIZ

INFORMATIKA ZERBITZUAK

- ORDENADOREAK
- INPRIMAGAILUAK
- TAILER PROPIOA
- MULTIFUNTZIO-INPRIMAGAILUAK
- ZERBITZU PROFESIONALA
- IKASTAROAK (hasmenta, irudi digitala, Office, internet...)

## EGUBERRIETARAKO ESKAINTZA BEREZIAK



**Mari Enxer**  
LENCERIA

ZORIONAK ETA EGUBERRI ON!  
DONEZTEBE - Parrokia, 11 - 948 450 152  
ELIZONDO - Jaime Urribia, 43 - 948 581 301

*Zorionak eta urte berri on!*

**MERCHE**  
MODA HOMBRE

Serapio Mujika, 11  
Tfnoa: 943 612 629

**CAPELETTI**  
Mendibil Merkatal Zentrua  
20302 IRLUN - Tfnoa: 943 624 672

*Amaya*  
Eguberrietako opariak

**LOVELY**  
BERRI EGUBERRI ONAREN

Arnezitia z/g - DONEZTEBE - 948 450 163

**edurne**  
HAUR ARROPADENDA

Altzate 30 - BERA - Tfnoa: 948 630 606

**GOYA**

- Baserritar jantziak
- Arropak
- Trango marka
- Mañdiareak
- Mantak
- Toallak
- Kortinak
- Alfonbrak

**EGUBERRI ON !!**  
Altzate, 5 • BERA  
948 630 083

**Ostargi Optika**

10. urteurrena ospatzeko eskaintza berezia  
Eguzki betaurrekoetan %10eko deskontuak

*Zorionak eta urte berri on!*

Bidasoa, 8 - BERA - Tfnoa: 948 630 753

Goizotegia  
**Malkorra**

- Urrekin egina
- Tartak eta pastelak
- Etxean egindako izozkia

Santiago, 15 - Tel: 948 580 061 - ELIZONDO

**Lilura** ilepaildegia

Rosa Seminario, 17 - DONEZTEBE - 948 451 961

**MIRARI**  
PREMAMA

ESTILOA BERRI...  
Zorri II  
aur jartzeko  
behar duzun  
gutxi dugu!





# AMEZTIA

Hostala · Jatetxea · Ostataua  
Jolas Parkea

## BOKATAK ERAMATEKO

Asteburuetan etorri zaitez  
bokatak eta pintxoak dastatzera

Espezialidadeak:  
arrainak eta haragiak parrillan  
Garaiko barazkiak

**OSTATUA:**  
**948 450 028**

**JATETXEA:**  
**948 451 902**

Ameztiako langileok eskerrak eman nahi dizkizuegu  
bezero guztiei gurera etortzeagatik.

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

**ARGIBEL**  
**OPTIKA**

DONEZTEBE - Intzakardi, 7 - 948450345  
ELIZONDO - Santiago, 62 - 948 581 391



Antiojoen bilketa hirugarren mundurako





- Pastorako kotxe eta aulkiak
- Seaska, moises eta bainera
- Saskitxoak eta seaskako arropa
- Autorako segurtasun-aulkiak
- Puerikultura ttikia, elikadura-tresnak eta osagarriak
- Pelutxe eta jostailu didaktikoak
- Haurrendako opariak
- Jaiotzako opari-lista

Artaleku, 3 - IBUN • Giza eta elkarrekin  
 Anbulatorioaren ondoan  
 Tel-Fax: 948 63 82 23  
 Larunbat arratskaldetan irekia

**Ikulu eta Xareta** ostetuek  
 zorionak  
 eta  
 urteberrion  
 opa  
 dizkizue



ESKERRIK  
 ASKO

**ikulu**  
**ostetua.bera** PINTXOAK  
 BOKATAK

**XARETA**  
**OSTETUA**  
 DANTXARINEA

**BOUTIQUE BIK**  
**merkealdia**



Bisita gaitzazue eta ikusi marketan ditugun aukerak  
 Arropetan behar denak abenduak 1etik aurrera  
**%20 DESKONTUA**  
**marka batzuetan**  
 irekia egunero 9:30etatik 19:30etara  
 Itardingo lepoan gaudu - Tfnoa: 948 630 558

**BIZIKLETEN**  
**SALMENTA ETA KONPONKETA**



zorionak  
 eta  
 urte berri on!!



Kanttonberri, 1 - BERA  
 948 63 12 18

**Probatu argiaren atsegina**  
**gizon eta emakumea**  
**guztu zure larrazaldaren**  
**leuntasunaz**



Beatrix Estetika Zentruko espezialistaren erabiltz eta Depitotal  
 Radical Laser Systemek garatu duen teknologia erabil, hainbat  
 zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

**FOTODEPILAZIOA ETA LASER-DEPILAZIOA**  
 Lehenbiziko saiokik lortzen da ilea kentzea eta oso alerra,  
 azkarra eta ondorioarik gabekoa da.

**FOTO-GAZTETZEA**  
 Zimurrak eta aurpegiko adierazpen-marrak hobetzen  
 dira, larri azalaren elastikotasuna handituz, gerutzak  
 hobetuz eta poroak neurria txikituz.

**FOTOTERAPIA-AKNE**  
 Sain gutxitzen erabat kentzen  
 da aknea, modu naturalan.



Zetaz eta gure Zentruak  
 eskaintzen dituen  
 zerbitzuak ikusiko dituzte.

**BEATRIZ ESTETIKA ZENTRUA**  
 Estetika-metodoei aurreratuenen  
 abangoardian eta, emaitzak frogatzeko,  
 17 urteko esperientzia.  
 Orain, diagnosi-informatikoa duen  
 jakiteko nolako den zure larrazaldia  
 eta ilea? zain tratamendu behar dituzun?  
 zerbitzu zain? eta zehazki konpertzeko zain?

Santiago, 53 - ELIZONDO  
 Tfnoa/Faxa: 948 580 283

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON !!**

**ttipi**  
**TXARTELA** rekin  
 ttipi-ttapa doan eta deskontuak



**Eguberrietako erosketetan**  
**DESKONTUAK**

**39 komertzioetan**

eskatu zure txartela  
 abantaila aunitz

**948 635 458**  
 www.ttipi.net



Partakari Plaza, 9 - 1. solairu  
 48100 ELIZONDO (Leizorako)  
 Tfno.: 948 580 208  
 e-mail: info@ttipi.net

2006ko abenduaren 15etik 2007ko urtarrilaren 15era

**POTOKI**

2006ko abenduaren 15etik 2007ko urtarrilaren 15era

- SILETAK
- SEHASKAK
- KOTERAKO ALKIAK
- LEHENAGOKO JOSTAILUAK
- EPEDOI ETA KOPOR-BABESKAK
- KOTXENDAKO ZAKUAK
- HAUR-ALKI ALTIUAK
- OPARIAK
- JAIOTZE ZERRENDAK



# eguberri hauetan zure

**Comercial  
Maria Jesus**

Bandindegia • Opatutako gantzak  
Pintura • zirkuldeko tresneria  
Bazarko arropa • Gintakak

 MAPFRE

**J.C. CHOPERENA**  
Aut. Dña. 62006

Plaza Zaharra, 28 • LESAKA  
948 637 105 / 948 637 220




MERTZERIA  
*Deñe*  
LESTZERIA

Tel. 948 637 216  
Bazarko Plaza, 10 • LESAKA

Zerbitzua eta  
nabari berria!!!



# KAX



Zarandia, 3 • LESAKA



eguberri

1. COMERCIAL M
2. DEÑE
3. MARIAN MEND
4. PINPIRIN
5. KAXERNA
6. BIXKIAK
7. OSIÑA
8. AINHOA ESTIL

# eguberri hau



# re erosketak... LESAKAN

## KERNA

ETXETRESNAK  
*Javier Eneberriaga*

Zorionak eta urte berri on!



LESAKA • 948 637 070 / 607 946 191

## ainhoa

estilista

berria RUTH ILEAPAINDEGAN  
betiko tokian aurkituko gertuaz!!

BOLARILAK, SPRAY SOL, ALPESER DEPILAZIOA,  
MAKILAK, MANKURRA, TRATAMENDUAK,  
I.E. BILDUAK, I.E. LIZAPEN...


**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON**

Bitxia 59 • LESAKA • 948 637 436

## Pinpirin

ILEAPAINDEGIA

Aitziber  
Ubiria Santesteban



Plaza zaharra, 26  
31770 LESAKA  
Tfnoa: 948 63 80 37

## xkiak

moda



Tfnoa: 948 638 110  
Arretza, 7 • LESAKA

*... eta urte berri on !!*

## MARIAN MENDIBERRI ORKIN

Lurrindenda  
Estetika  
Opariak  
Bitxiak  
Osagarriak  
Arropa

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

Behoko plaza, 8 • LESAKA • 948 637 791

## SIÑA

moda eta osagarriak

eguberri on!!



Abistor, 3 behe • LESAKA  
Tfnoa: 948 637951

## MARIA JESUS

MENDIBERRI

ISTA



# uetan zure erosketak... LESAKAN



# eguberrietan donezteben

giro paregabea

abendua  
**23**  
Heineken  
besta

abendua  
**31**  
Mozorroen  
besta 200€ saria

urtarrila  
**5**  
Txupito  
besta  
22:00etatik 00:00etara



**ZOKKETAKI!!**  
**Sari nagusia**  
**Formula 1**  
2 pertsonendako  
5 bidai.  
Urtarrilaren 6an  
zozketatuko da  
\* Autobusa - Hotela\*\*\* MP  
2 sarrera (malatzaren 11tik 13ra)

**Zorionak eta urte berri on!**  
irakurle guztiei



• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



GALTZAUNDI, Tolosaldeko Herri Aldizkaria 2006-11-17

«Neretzat haurrekin poesia lantzea zorion handi bat da. Beraiekin haur bilakatzen naizelakotz, eta irudimenaren iturburuetara hurbiltzen. Haurrek lantzen dituzte matematika, esku lanak, kantuak, bertsuak, nunbait neurtuak diren gaiak, baina damugarri zaut poesiarentzat ez dutela tokirik, edo bestenaz, bakarrik ttikien eskoletan, amen bestetako egiten diren poematxoetan baizik».

**Auxtin ZAMORA**  
Senpereko poeta  
Galtzaundi 2006-11-17

«Betizuak urtean hirulau aldiz jausten dira menditik herrira eta barazkiak eta setoak jaten dituzte. Urtero errepikatzen da. Honek izan dezakeen ondorio ekonomikoak ez nau kezkatzen, baina betizuen jabeak azienda hauen arduradun egitea eta ihes egiten ez uztea eskatzen dut, egunen batean zerbait serioagoa gertatuko baita. Ardura abeltzainena da eta beraiek moldatu behar dute egoera».

**Antonio APEZETXEA**  
Goizuetarra  
D.Noticias 2006-11-20

• 11 GALDERA LABUR •

**Futbola eta kantua bezalako zale-tasun desberdinak uzartu al daitezke?**

Denbora daukezon bitartean bai noski. Gustokoak dittut ta.

**Zer dauka futbolak abesteak ez daukana?**

Ekintza eta jarduera fisiko handie.

**Eta abesteak futbolak ez duena?**

Abestekoan soilik sentitzen den hori.

**Egunero-egunero zerbait ikasten dela esan ohi da, zer erakutsi dizu futbolak azken urte hauetan?**

Gauzik positiboena taldekideekin lortzen dozon harremana.

**Kantuak, horrek ere zerbait irakatsiko zizun ezta? Zer?**

Kantuan gauze bera baino egoera desberdinetan.

**Eta batean eta bestean ikasitako gauza horiek erabilgarriak egin al zaizkizu eguneroko jardunean?**

Dudik gabe. Beti da aberasgarriejendekin erlazionatzea.

**Ikasten ere bazabiltza. Denbora nahikoa izaten al duzu denak egoki aurrera eraman ahal izateko?**

Lehen esan bezela, denborak agintzen do. Zenbaitetan ezin ailegatuz ibiltzen ga.

**Askotan hiru eginbeharrak batera egin beharrean aurkituko zara. Zeri ematen diozu garrantzia?**

Denek konpromiso maila bat eskatzen badute ere, dudik gabe lehenengo ikasketena da.

**Eta garrantzirik gutxiena?**

Ez da garrantzi kontua, ardura eta konpromiso kontua baizik.

**Nola ikusten duzu futbolaren etorkizuna Leitzan eta inguruan?**

Ongi ikusten dot. Gazte ugari dabil orain futbolen eta ongi gainera.

**Eta Asketa abesbatzarena?**

Giro bikainen aizen gara eta aurrera egingo dugu. Hemendik gazte gehiagori animatzeko gonbita luzatzen diet.



**Jon ARANGO**

*Leitzako Aurrerako futbolaria eta Asketa Abesbatzako abeslaria*

**Karlos Alzugaray**  
FISIOTERAPEUTA  
OSTEOPATIA

**Haur jaioberrientzako osteopatia tratamenduak**

Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra  
T. 948 630 187 M. 607 853 208

**ZUBIONDO JATETXEA**

Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

HEGASIBO  
ETXEN  
EDNTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE

T. 0537847519  
Makela eta Vitoriazpe  
CABA

**ARTEKARI TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berriz ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elkaritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittirio, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 404  
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

## KULTURA

# Integrarte erakusketa zabalik da Etxalarko Kultur Etxean

Adimen elbarritasunak dituzten artistek egindako lanak ikusgai daude

**Aitor AROTZENA**

Abenduaren 24a arte Etxalarko Kultur Etxean ikusgai egonen da Integrarte erakusketa. Adimen elbarritasunak dituzten 26 artistek egindako 78 obra ikus daitezke. Isabel Arbonies, ANASAPS elkarteko presidentea adierazi zuenez, proiektu hori montatu dute gizarte-erakusteko adimeneko elbarritasuna duten pertsonen bizia ez dela bakarrik eritasuna, eta horren ondoan gauza batzuk egiteko gai direla. ANASAPS elkartearen barnean dauden pertsonak gizarteratu nahi dituzte, artearen hezkuntza erabiliz eta estereotipoak bazter batera utziz.

## «AURREIRITZI NAHIZ ESTIGMAK GAINDITUZ»

Mertxe Mendiburu, Dizdirako arreta zuzeneko arduradunak azpimarratu nahi izan zenez, erakusketa horrekin pertsona hauek dituzten gaitasunak pla-



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

**Ainhoa Arburua, Isabel Arbonies eta Mertxe Mendiburu, ANASAPS elkarte-ko teknikariek erakusketaren berri eman zuten prentsaurrean.**

zaratu nahi izan dituzte: «Nafar gizartearen zatirik handienak eza-gutzen ez duen bertzeko dimentsio bat agertzea da erakusketa honen helburu bakarra, aurreiritzi nahiz estigma guztiak gaindituz. Lan hauen erakusketarekin jendearen hurbiltasun gehiago bilatzen dugu».

Etxalarren ez ezik, Tuteran, Tafallan eta Iruñean egin da erakusketa, Nafarroa osoan lan hauek erakusteko.

ANASAPS-eko delegazio guztietan bildutako 130 obretatik 78 ikusgai daude Etxalarren. Erakusketa zabalik izanen da astegunetik 16:00etatik 19:30era eta

asteburuetan 18:00etatik 20:00etara.

Elkarteko presidentek jakinarazi zuenez, heldu den urterako argazki erakusketa prestatzeko asmoa dute. Bere erranetan, adimen urriko pertsonen argazkiak hartzeko duten modua hagitik interesgarria da.

## Haur, gazte eta helduei zuzendutako lehiaketak antolatu dira Baztanen

**ttipi-ttapa**

Baztango euskalgintzak 6 eta 17 urte artekoendako bertso paper eta ipuinen lehiaketa eta 18 urtez goitikoendako gutun eta esaldi lehiaketak antolatu ditu. Lanak urtarrilaren 30a baino lehen igorri beharko dira Baztandarren Biltzarra elkartera (22 posta kutxa, Elizondo).

Bertso paper eta ipuinen lehiaketa hiru mailatan banatu da, adinaren arabera: 6-11 urte artekoak; 12-14 urte artekoak eta 15-17 urtekoak. Adinaren arabera, lanen luzera aldatuko bada ere, denek gai librean izanen dute. Lehenbiziko bi saridunek liburuz eta CDz osatutako lotea irabaziko dute. Gutun eta esaldi lehiaketako irabazleek berriz, bi pertsonendako afaria eskuratuko dute.

**sarnha**  
guztegiak elkarrengatik  
1000 artzago 25 bago 1.948.63.08.99  
30700 berriztasunak www.sarnha.net

**BORTZIRUDI**  
bortzirudi@telefonos.net  
BARTILAK KANISETAK BIZARRA TOSKERDIA (Nahi duzun inbisi- aldimenekin)  
FOTOKOPIA DIGITALAK BILBUTETAK TITULU BILTZEAK PLANGAK  
ENKILADERNALZAK PLASTIFIKAZIOAK PEPEPITAK BILEGO MATERIALA  
DISKINU GRAFIKA LOGOTIPUAK ERROZKILAK IMPRENTA  
Entseku 24, Etxebarria Berron II - BERA - Tel.Foneo: 948 631 571

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIK  
sukalderako altzariak  
ERAKUSKETA  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891  
Faxa: 948 637 511

**BAR Botxo OSTATU**  
© 948630052 • Zalain • BERA

**JAZZ - GAZTEAK**  
Altzate, 19 • 948630786 • BERA



**BERA**

## Gaztetxoei ateak irekitzeko asmoa du Gure Txokoa elkarteak

Udaletxea moldatzeko 280.000 euro eman du Gobernuak

**Amaia eta Ainhoa**

Abenduaren 13an Gure Txokoa Elkarteak eta Toki Ona Institutuko Guraso Elkarteak egindako bilkuran, gaztetxoentzako (gehienez 17 urtekoak) elkarteko zonalde bat irekitzeko asmoa agertu dute. Eguberrietarako irekitzeko intentziora badute eta dagoeneko gazte batzuk izena eman dute. Oraindik izena emateko epea zabalik da eta interesatuek Jamoteneako postontzian bere datuak utzi beharko dituzte: izen-abizenak eta telefono zenbaki bat.

**Udaletxea berritzeko dirulaguntza**

Nafarroako Azpiegitura Planetik bi aldiz laguntza ukatu ondotik, udaletxea moldatzeko Nafarroako Gobernuak 280.000 euroko laguntza eman du. Herriko Etxea berritzeko lanak 597.466,72 eurotan ater dira lehiaketara. Diru horrekin lanen lehenbiziko fasea egingen

da: sotoan, beheko eta lehenbiziko solairuetan egingen dira lanak. Lanak egiteko lehiaketara aurkeztu nahi duenak 2006ko abenduaren 27ra bitarteko epea du dokumentazioa udal bulegoetan aurkezteko.

**Eguberrietako ekitaldiak**

Eguberriak iritsi dira eta ohiko ekitaldiak antolatu dira. Horrela, abenduaren 24ean Olentzero Eguna ospatuko da eta 15:30etik aurrera ikastetxetako haurrak karrizak ibiliko dira kantari. Ondoren, 17:00etan, Hator Hator eta Olentzero abesteko, Berako Plazan elkartuko dira denak. Eguraldi txarra bada Eztegara Pilotalekuan kantatuko dute. Helduak ere, Gure Txokoan elkartuko dira, plazan abestuko dute eta ondoren herriko karrikatana barna ibiliko dira. Urte zahar egunean ere izanen da ekitaldirik. Arratsaldeko 15:00etatik aurrera, haurrek Glin-



ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

**Mikel Zelaieta Mister Navarra izendatu dute**

Abenduaren 10ean Barañainen egindako lehiaketan Mikel Zelaieta, 25 urteko beratarra, 2006. urteko "Mister Navarra" izendatu zuten. Lehiaketara 70 lagun aurkeztu ziren eta 35 partehartzaile inguru baztertu zituzten. Gala ikusteko 700 lagun bildu ziren eta arropa informalekin, bainujantziaekin eta gaueko arroparekin desfilatu zuten partehartzaileek. Mikelek, 500 euroko balioa duten foto-depilazio saioak irabazi zituen.

Glan abestuz goxokiak eta dirua bilduko dute arratsaldean eta helduak 18:00etan hasiko dira Diostesalbea kantatzen. Urtsilaren 5ean Erregeak etorriko dira Berara. Berrikuntza bezala, Larun Haitzpe Merkatarien Elkarteak antolatutako ekitaldiak aipatzekoak dira. Alde batetik, abenduaren 26tik 30era bitartean Eguberrietako Parkea zabalduko dute Altzateko frontoian. Egunero 11:30etik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara puzgarriak, haurrentzako tailerrak eta bertze hainbat gauza izanen dira. Sarrerak eguneko 3 euro kostako dira eta bortz egunetarako erotiz gero, 10 euro or-

daindu beharko dira. Bertetik, haurrentzako zinema antolatu dute abenduaren 27rako. «Kiriku eta basapiztiak» filma emanen dute Kultur Etxean 18:00etan. Sarrerak 2 euroren truke eskuratu daitezke eta Eguberrietako Parkeko pasearekin doan ikusteko aukera izanen dute haurrek.

**Antzerkia**

Uxane Zentroak eta Antzerki eta Eskola Elkarteak antolatuta, Uxane Zentruko ikasleek aurtan ere antzerki ikuskizun berezia antolatu dute. Abenduaren 23an, Kultur Etxean «Andando según se anda» antzezlan eskainiko dute.

**Dantza jaialdia eta erakusketa**

Gure Txokoa dantza taldeak dantza jaialdia eta argazki erakusketa-rena inaugurazioa egingen ditu abenduaren 23an. Argazki erakusketa-rena inaugurazioa Jamotenean izanen da 18:00etan eta ondotik, 18:30ak aldera Larrain dantza eta dantza herrikoiak eskainiko dituzte.

**Gabon Kopa futbito txapelketa**

Urtero bezala, aurtan ere areto futboleko Gabon Kopa jokatzeko ari da kiroldegian. Abenduaren 18an hasi zen eta 29ra bitartean luzatuko da. Partidak ilunabarretan jokatzeko dira.

**ANSONEA**  
Ostatua-Jaletxea  
Eguneroko menua eta astiharatar menu bereziak  
Terraza estalia eta Ziberkafea  
Foras Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA



## LESAKA

# Arrano elkartearekin elkartasun eguna antolatu da

Abenduaren 30ean egingen da eta hainbat ekitaldi izanen dira

## Aitor AROTZENA

«Itzalaren gainetik, Arranoa hegan» izenburuarekin, Arrano elkartearekin elkartasun eguna antolatu da abenduaren 30erako. Goizeko 10etan diana izanen da. 11:00etatik 13:00etara haurrentzako antzerki tailerra eta bertso tailerra izanen dira. 13:00etan bertso poteoa egingen da eta 14:30ean bazkaria.

Bazkariaren prezioa 10 eurokoa da eta izena eman beharko da Arrano ostatuan. Bazkariaren ondotik mus txapelketa jokatu da eta Sanferminak 78 eta Ezkabako ihesaldia bi-deoak eskainiko dira. Ilunabarrean pintxo dastaketa izanen da. Aipatzekoa da egun osoan ikusgai izanen dela kartel erakusketa eta Euskal Herriko pertsonaien erakusketa.

## Eguberrietako ospakizunak

Urtero bezala, abenduaren 24ean, eguerdian, jaiotza eta olenzero lehiaketa egingen dira plazan. Baina ez da eguberriekin lotutako ekitaldi bakarra. Musi-

kariak ere bere lana erakutsi nahizik kontzertuak eskainiko dituzte: 21ean Musika eskolak eskainiko du pleno aretoan 17:30ean; 22an akordeolari, trikitilari eta txistularien txanda izanen da 20:00etan leku berean eta 23an, Musika banda eta Abesbatzak eskainiko dute kontzertua 20:00etan elizan. Bertzalde, abenduaren 22an Txan Magoak ere bere emanaldiak eskainiko ditu, 17:00etan eskolako gimnasioan eta 22:00etan Kasinoan.

Aipatu, azkenik, abenduaren 26tik urtarriaren 5era Txiki Park izanen dela Iraingo pilotalekuan, 16:00etatik 20:00etara.

## Bertso bazkaria Arrano elkartean

Abenduaren 23an, Arrano elkartearen bertso-bazkaria antolatu du Bortziritako bertso eskolak, 13:30ean. Jon Maia eta Amets Arzallus arituko dira, Josu Goikoetxea tramagilearen erranetara. Izen ematea, Arrano elkartearen bertan edo 618



UTZITAKO ARGAZKIA

## Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zuten abenduaren 3an Tantirumairu ikastolan

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen zela eta, abenduaren 1ean Tantirumairu ikastolako haurrek esketxak eskaini zituzten bildutako guraso eta lagunen aitzinean. Talde bakoitzak bere eran moldatu zituen, antzerki, hip-hop eta dance gisara, baina denek euskararen erabilerari buruzko mezu batekin. Erakustaldia bukatzeko, egunaren helburuarekin bat egiten duen Euskal Herrian euskaraz kantatu zuten ikasleek irakasle eta gurasoekin batera.

## Udal igerilekuak badu bere logotipoa

Udalak deialdia egin zuen igerileku estali-ko logotipoa aukeratzeko. Azaroaren 24ean akautu zen epea eta guzira 27 lan aurkeztu dira. Horien artean, Asier Pérez-Karkamok egindako logotipoa izan da irabazlea. 300 euro eta urte baterako bonoa irabazi du. Logotipoa udalaren web orrian ere argitaratu da.



963011 zenbakira deitu egin behar da.

## Iker Tainta, Mister Simpatia

Urriaren 21ean, Mister

Lur izendatu zuten Iker Tainta Elizondoko Lur dantzalekuan. Horrek, abenduaren 10ean Barañainen egin zen Miss eta Mister Navarra jaialdian

parte hartzeko eskubidea eman zion. Sari nagusia eskuratu ez bazuen ere, Mister Simpatia saria eskuratu zuten Taintak.

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESAKA  
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA  
Tfnoa.: 948 63 74 60 • 31770 Lesaka

Toailak-Maneieriak-Oheko maizdreak  
Eskolako haurren mantalak etab.  
bordatzten ditugu

Herriko bestatarako, kamisetak, eta blue  
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin  
bordatzten ditugu

Erri Plz. Berriz 4ra eta ikusi bertako erakunde!!! Tel: 948 637 660 • 689 481

**GOZZALDE**  
ZARRAINDIVYA



## ETXALAR

# Udaletxeko ganbaran Mankomunitateko bulegoak egiten ari dituzte

80 urte bete dituztenak omendu zituen Larraburua elkarteak abenduaren 3an

### Joseba eta Nerea

Azaroan hasi ziren Udaletxean Mankomunitatearen bulego berrietarako obrak. Orain arte Hiri-hondakinen Mankomunitatea eta Gizarte Zerbitzua Mitxelarre-neko lehenbiziko solairuan zeuden, baina lekua tiki gelditu zaie. Honetaz gain, bigarren solairuko udal bulegoetara igotzeko igogailua jarzea erabaki zen. Bi gauza hauek kontuan hartuta, Udaletxeak Mankomunitateari dagozkien bulegoak ganbarara igotzea erabaki du eta igogailua jartzea. Mankomunitateentzako 7 gela izanen dira, bai langileentzako bulegoak, bai eta bilerak egiteko gela handiago bat ere. Igogailua eraikin osoarentzat baliagarria izanen da, hau da, udaletxeko bulegoentzako eta mankomunitateetarako. Obra osoaren aurrekontua 162.990 eurokoa da, eta Nafarroako Gobernutik 83.929 euroko dirulaguntza es-



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

**Mankomunitateentzako zazpi gela egiten dira Herriko Etxeko ganbaran.**

kuratu da. Obra hauek otsailerako akabatuak egotea espero da.

### 80 urtekoei omenaldia

Urtero bezala, joan den abenduaren 3an aurten 80 urte bete dituztenak omendu zituzten Larraburua elkartean. Lau lagun izan ziren aurten: Buxungo Maria Isabel Perugorria, Arri-

neko Bordako Pakita Arretxea, Iruineko Bordako Martin Indaburu eta Anai Etxeko Maria Zubieta. Elkarteko oroi-garria eman zitzaizen gutzietan eta bazkaria izan zuten ondotik gonbidatu eta elkarteko kideekin batera. Guztira 60 lagun bildu ziren eta, erran digutenez, besta giroak eta umore onak ez zuen hutsik egin.

### Mus eta Partxis txapelketak

Datozen asteetan akabatuko dituzte Larraburuko kideek aurtengo Mus eta Partxis txapelketako partidak. Finalistak erabakitzen direnean, urteberri egunean jokatu dira bai mus eta bai partxiseko azken saioak eta Errege egunean egiten dute sari-banaketa.

### Urteroko ekitaldiak Eguberrietan

Aldaketa handirik gabe heldu dira aurten ere Eguberriak. Urteroko ohitura segituz, Olenzero etorriko da abenduaren 24ean. Ilunabarreko mezaren ondotik, kalejira egiten da txistulari, trikitilari eta hainbat herritarrekin. Olenzeroren irudiak kale kale ibiliko dira eta ondotik, luntxa emanen zaie bildutako gutzietan. Lerro hauen bidez herritarrek guztiak animatzen ditugu baserriarrez jantzita joan daitezten.

### Kontzentrazio urteko azken egunean

“Euskal Presoak Euskal Herrira” lemapean, kontzentrazio isila egiten da Herriko Etxeko arkupean heldu den abenduaren 31an. Urtero bezala, Eguberriak gure artean pasatu ezin dituztenak oroituko dituzte hainbat herritarrek.

**ZJ**  
**Zalain**  
jatekxoa  
**Hostala**  
14 logela,  
bainu eta TBrekin  
Bera - Nafarroa

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko Istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

**XATURETXEA**  
JATEKXEA  
T: 948 637 027 - LESAKA

**IRU BIDE**  
Estrategia - Asador  
Bilarrak, 3 - Lesaka  
Tel: 948 637 127



ARANTZA

# Abenduaren 30ean 'Tximista' futbito txapelketa antolatu du Ekaitza elkarteak

Hilaren 23a arte jokalaria taldeek izena eman beharko dute

**Nerea ALTZURI**

Eguberriak gainean ditugu. Egun seinalatuak izanagatik ere, batzuentzat berexiak, eta bertezentzat ohikoak izaten dira. Neguarekin batera, ordea, Olentzero menditik herrira jausten da eta opariak, ikatza... denetatik ekartzen du herritarrentzat bere morrale edo zaku handian. Guzia prestatzen ari dira berari harrera egiteko hilaren 24rako. Bertze hainbat herrietan bezala, olentzeroak eta kantuak guziren ahotan ditugu. Olentzeroak honezgero eginak izanen dira, eta kantuak

entsaiatzen ari dira. Aurtentzen eskolan olentzero bakarria prestatuko dute eta Ekaitza elkarteak ere bertze bat ateratzeko asmoa du. Heldu den igandean, 16:00etarako hitzordua jarria dago. Tradiziozko arropak jauntzi, zintzurra ordurako zaindu eta findu eta ohiko kalejira eginen da herrian barna, olentzeroak bizkarrean hartu eta kantuan.

Ondotik, Zahar Txokon berendua izanen da Guraso Elkarteak prestatua. Biharamonean, abenduaren 25ean, eguerdian, haurrentzako jokuak izanen dira



Argazkiak: Oskar TXOPERENA

**Herriko gaztetxoak nonahi, eskualdean nahiz zonaldeetako kanpoko pilota txapelketetan parte hartzen ari dira. Eskualdean, Bortzirietako banakako txapelketan ari dira orain. Binakako txapelketan, berriz, finalak azaroaren 26an jokatu ziren. Herritik ere izan zen ordezkari Beran. Kadetetan (argazkian) Jon Jorajuria eta Unai Iparragirrek jokatu zuten finala eta Alebin B mailan, Jon Mazizior Gure Txokoako Pinatxorekin aritu zen. Partidak galdu baldin bazituzten ere, azkenean denak lan bikaina egin dute.**

plazan, hauek ere Guraso Elkarteak antolatu. Olentzeroak hartuta kantatu eta, beti bezala, erre eginen dira. Olentzeroak sugarretan dauden bitartean, korroan kalejira dantzatzeko dute partehartzaileek.

### Ekaitza elkarteak berriak

Lehen aipatu moduan,

Ekaitza elkarteak olentzeroa ateratzeko intentzioa du. Bertzalde, Eguberrietako ohiko ekimen honetaz gainera, hilabete honetan bertze kultur eta kirol ekintza batzuk antolatu ditu elkarteak. Joan den larunbatean, opil edo talo jatea egin zen Ekaitzan. Abenduaren 30ean, larunbatean, 'Tximista' futbito txapelketa jokatu da frontoan. Herritarren arteko futbito partidak jokatu dira eta txapelketa larunbat arratsaldetan bertan akautuko da. Parte hartu nahi duten taldeek izena abenduaren 23a arte eman dezakete, Aitor edo Gaizkari hotseginez. Txapelketari bukaera ezin hobea emateko, afaria eginen da elkartearen.

**ttipi**  
**ttapa**  
☎ (0034) 948 635458

Tel: 948 634 179  
**ARANTZA**  
**ATERPE**  
ALBERGEA IATETXEA

**PERSIANAS** **TOLDOS BAZTAN**

TOLDOAK sailmenta-konponketa- alokairua-errotulazioa  
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak  
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003  
Bidasoa, 66 behea - BERA



## IGANTZIKO HERRIKO ETXEA

### XEHETASUN AZTERLANAREN HASIERAKO ONESPENA

Igantziko Udaleko alkate udalburuak, 2006ko abenduaren 5eko 113/006 ebazpenaren bitartez, ebatzi zuen hasiera batez onartzea 1. poligonoko 19. lur zatian biltegi bat egiteko (sukaldea eta biltegi izateko eranskin bat) xehetasun azterlana (2006ko urriaren 10ean bisatua Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialean) Gurutze Iribarren Madariagak andreak sustatua.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. eta 76. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, espedientea jendaurrean egonen da hogeit egunez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertu eta biharamonetik hasita, azter dadin eta bidezko alegazioak aurkezten. Jendaurreko aldiaren inork ez badu alegaziorik aurkezten, agiria behin betiko onetsitako da, bidezko bada.

Igantzin, 2006ko abenduaren 5ean.  
Alkatea, Jesús María Begino Garro.



## IGANTZI

# Giro ederrean joan dira aurten ere Kultur Egunak

Aurkeztutako 13 plateren artean Dani Taberna gazteak irabazi zuen patata-tortilla lehiaketa

### ttipi-ttapa

Abenduaren 7tik 9ra Kultur Egunak ospatu ziren Igantzin. Hirigintza ereduari buruzko mahaingurua aski interesgarria egin zuten Biltokin ortzegunean. Harelere, ortzirala izan zen Kultur Egunetako egun nagusia. «Igantzarrak atzerrian» erakusketa ikusgai izan zen Zahar Etxean. Bertan bildu zituzten atzerrian ibilitako hainbat igantziarrek utzitako argazki eta tresnak. Denbora berean, Biltokin patata-tortilla txapelketako epaileek aurkeztu ziren 13 pla-

terak dastatzen hasi ziren. Epaimahaia Blanca Matxikotek, Pedro Aldabek, Kontxita Vicentek eta Karmen Hitak osatu dute aurten. Tortilla-egileei dagokienez, Janire Loinaz, Maria Yanci, Unai Canabal, Ana Sirera eta Irati Arbelaitzek osatutako taldeak bi tortilla aurkeztu zituzten. Olaia Matxikote eta Naroa Loinazek, Ainhoa Antxordoki, Dani Taberna, Rafa Zamorano, Begoña Martinez, Justa Sein, Jose-txo Arburua, Maiana eta Itziar, Mari Sol Dorron-soro, Amaia Sein eta



UTZITAKO ARGAZKIA

### Herri kirol taldea Migel Angel Etxarteren oroimenez egindako oroitarrian

Argazkian Igantziko herri kirol taldea ageri da, herri kirola gehien bultzatu duenaren oroimenez, Migel Angel Etxarte «Kaxot» zenaren oroimenez jarritako oroitarrian. Azken urteetan bezala, aurten ere emaitza onak eskuratu dituzte. Patxi Irazoki Euskal Herriko txapeldun izan da koxkor biltzen. Behobia-Donostia lasterketan bikain ibili zen eta 12.000 lagun artean lehendabiziko 40en artean sartu zen, 1:08ko denborarekin. Bertze partaideen emaitzak ere onak izan dira: sokatiran txapeldun, Nafarroako lasto eta ingude txapeldunak, Nafarroa ordezkatzu taldeko hiru kidek Euskal Herriko 7 lurraldeen txapelketa irabazi zuten hirugarren urtez segidan. Nafarroako konbinadari dagokionez, bi zatitan banatua dago eta batean laugarren izan baziren ere, bigarren txapeldunak izan ziren. Argazkian, herri kirol taldekoak aurten lortutako zapel eta kopekin ageri dira. Aipatzekoa da aurten herriko haurrek Nafarroako konbinada txapelketan parte hartu dutela. Laguntzaileen aldetik, Igantziko Biltoki, Igantziko Udala eta Lesakako Txakainlo aterpetxearen laguntza izan dute.

Stefane Renaud-ek bana aurkeztu zuten. Horien artean, txapela Da-

ni Taberna gaztearentzat izan zen, bigarren postua Stefane Renaud-

entzat eta hirugarren postua Amaia Seinentzat.

1951tik lentzeria-etxea

**Casa Cambra**

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

albornoak • mantelak • maindireak  
edredoi-azal nordikoak • ohe estalkiak  
edredoi nordikoak • kuxinaktoailak



EDREDOI-NORDIKOETAN ESPEZIALIZATUAK

SUNBILLA

# Eguberrietako ekitaldi ugarietarako prestakuntzak hasiak dira dagoeneko

Eguberri arratsaldean eskean antortxeekin atera nahi dute aurten gazteek

**Jaione OTXANDORENA**

Eguberriak gainean daudela eta, dagoeneko hasiak dira egun horietan egingo diren ekitaldien prestakuntzak. Joan den ostiralean hasi zituzten olentzerorako entsaioak eta ostiral honetan ere entsaioa izanen da, beheko eskolan 17:00etan. Igan-dean, abenduak 24an, beheko eskolatik hasiko da olentzeroren ibilaldia, eguerdiko 14:30ean. Ibilaldia bukatu ondoren, ulibeltzak elkartean berendua izanen da.

**GAZTEEN ESKEA**

Bestalde, abenduak 25an, herriko mutil gazteak Itturburu ostatuan bilduko dira 17:00etan herrian barna 'eskean' ibiltzeko. Aurten, berri-



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

**Eskean ibilitako azken bi etxeetako atarian ateratako argazkia, Lizartxo eta Itzulbidea etxeetan: Aitor Agirre, Imanol Apeztegia, Unai Bertiz, Jabier Ibarra, Xabier Petrirena, Arkaitz Mindegia, Joseba Apeztegia eta Mikel Arrieta.**

kuntza bezela, antortxeekin atera nahi dute gazteek eta Arkaitz Mindegia trikitilaria izanen dute lagun. Herriko ibilaldia bukatu ondoren,

Itturburu ostatuan afalduko dute, gauean baserriz baseri eskean aritzeko indarrak hartzeko. Goizalderarte luzatuko da eskea, nahiz eta

argazkian garbi ageritzen bezela, ateratzen diren gazte guztiak ez dute azken baserrira iritsi arte irauten. Egun hotetan gazteekin eske-

an atera nahi duenak, Itturburu ostatuan dagoen zerrendan eman beharko du izena.

**ERREGE KABALGATA**

Eguberrietako azken ekitaldietako bat, errege kabalgata izanen da. Urtarrilaren 5ean, arratsaldeko mezaren ondoren iritsiko dira Meltxor, Gaspar eta Baltasar eliz atarira, beren laguntzaileekin eta hurbiltzen diren haur guziei opariak banatzeko prest. Eliz atarian Jaiotza ere izanen da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, jaiotzaren ondoan egoteko artzaitxoak behar dira, eta nahi duenak ere, bildotsaren bat, oiloren bat, arraultzez beteriko saskiak... ekar ditzake, jaiotza dotore dotore jartzeko.

**BURKAITZEA**  
ostatu  
erretegia  
Zugamamurdi bidea, 3 km  
948 599 280 - URDAZUBI

**Lanchas**  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK  
Bera - Tfnak: 948 610 715 - 607 406 781

**Distralum**  
Enkuzketa eta fabrika:  
Alkaleja Ind. - Beorin, 8 - 31789-BERA  
Tfnak: 948 63 16 26 / 607 40 28 73  
sistemas@distralum.e.telefonica.net

- Terraza, lorategi eta atikoetarako ibiturak
- Zure lorategi, terraza eta atikoaz goza dezazun soluzio guztiak ematen dizkizugu
- Eman toki gehiago zure etxe edo negozioari panel lerrakorreko sabai eta panel tolesgarriko alboetako ibiturekin

**Lankilanak**  
ARQUITECTURA ETA HIRIGINTZA

STRATEGIEN PROIEKTUAK  
URBENIZAZIO PROIEKTUAK  
ENB. GERRITZAK  
NABEAK  
KONSTRUKTIO  
INFORMAZIOA, 20

SANTIAGO 35 2ºB ELIZONDOKO TLF 948 981 831





# Non daude jokuaren arauak?




urte osoan  
bizimodu  
erosoagoa da



sumum  
sumuaren errenta



## DONEZTEBE

# Malerrekatik kanpoko kideak onartuko ditu Gazte Burrunbak

Jokin Apezetxeak presidente kargua utziko du urte bukaeran

## ttipi-ttapa

Azaroaren 25ean egin zuen Gazte Burrunba elkarteak urteko batzar orokorra, iazko balantzea egin eta etorkizuneko eginbeharrak aipatzeko. Gai nagusietako bat, elkartean Malerrekakoak ez diren pertsonak onartu ala ez izan zen. Bozkatu ondotik, kanpoko kideak onartzeko estatutuak aldatzea erabaki zuten.

Urtean antolatu dituzten ekitaldien balantzea egin eta gero, diru kontuak izan zituzten aipagai. Jakinarazi zute-

nez, ekonomikoki urte hasieran baina hobekiago daude, batez ere Doneztebeko bestetan paratutako txoznari eta Nafarroako Kutxak erakusten duen «Zuk hautatu, zuk erabaki» kampaian Gazte Burrunbako 2007ko programak bildu dituen botoei esker izandako dirulaguntzarengatik. Urteko egitaraua osatzeko eta hobetzeko helburuarekin egin daitezken gauzen artean, antzerkia presatzearena izan zen arrakasta gehien izan zuena. Hori dela eta, zu-

zendari baten laguntzarekin, 2007an antzeslana prestatzeko asmoa dute elkarteko kideek.

Batzarraren bukaeran, Jokin Apezetxeak elkarteko presidente kargua utziko zuela jakinarazi zuen. Bere us-tez urte ona izan da eta azpimarratu nahi izan zituen Erreka elkartearekin antolatutako ekitaldiak, The Bond Scot Band taldearen kontzertua eta lehendabizikoz bestak elkarlanean antolatu dituztela udala eta herriko ostatuekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Abenduaren 9an lepo bete zen Arantzoko, Gazte Burrunba elkarteak antolatutako bertso-afarian. 80 bat lagunek, gehienak gazteak, ederki afaldu ondotik, Sustrai Colina eta Jexux Mari Irazuren bertsoak aditu zituzten.



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Santa Luzia egunean Urrezko Titarea eman zion Udalak Angeles Buenetxeari. Jostunen egunean, meza ondotik hartu zuen saria eta eskulangileen lanak ikusteko eta erosteko aukera ere izan zen.

**Belarra**  
jatetxea  
948 450 306  
Amezlia karrika  
DONEZTEBE

**Ark<sub>b</sub>** arkitektura bulegoa  
Erakuntza  
Hirigintza  
Udal-aholkularitza  
Celia Lana Ranz  
Huarte Gotzai 7 - 31800 Leitza  
645008478 tel

**Pitti**  
eskabazleak  
Tel: 616 513 491

Mendiaketa etxea, 34 ZUBIETA

**APARAN, S.A.**  
BARKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ale arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta berrizak
- Bainurako mobleak eta osagarniak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
DONEZTEBE

**ANTZUZELAGI**  
S.L.

Tel: 948 631 317

**HARRI NATURALA**

Abaratze eta Lanbete

Hartzeak	Tasak
Hartzeak	Hartzeak
Hartzeak	Hartzeak
Hartzeak	Hartzeak
Hartzeak	Hartzeak
Hartzeak	Hartzeak
Hartzeak	Hartzeak
Hartzeak	Hartzeak

Argazkia: Edurne Zubieta

**ZINDARRIA**  
ABURUA  
ZURAK

Inongo errepidea  
BERA



## LANA

# Langabeziak gorakada nabarmena izan du azaroan

Batez ere emakumeek somatu dute igoera



ARTXIBOKOA  
Gehien bat emakumeek somatu dute langabeziaren igoera, urrian baino 41 langabetu gehiago baitzeuden azaro hondarrean.

### ttiipi-ttapa

Bi hilabetez beheiti egin ondotik, langabeziak berriz ere goiti egin du gure eskualdean azaroan. Doneztebeko enplegu bulegoan, urri bukaeran 561 lagunek izena emana zuten eta hilabete beranduago 609k, 48 gehiago.

Langabeziaren igoera emakumeek somatu dute batez ere. 25 urte baino guttiago dituztenetan 6 emakume gehitu dira zerrendara, eta 25 urtez goitikoetan berteze 35. Gizonezkoetan ez da hain igoera handirik izan. 25 urtez beheitikoetan 6 lagun gehiago apuntatu dira Doneztebeko Enplegu Bulegoan eta 25 urte baino gehiagokoen artean, bakarra.

Sekulan lanik egin ez duten pertsoenez aparte, bertze sail guzietan goiti egin du langabeziak, baina batez ere zerbitzuen arloan. Azaro hasieran 328 ziren arlo horretan lan bila zebiltzanak eta hilabete beranduago berteze 50 gehiago. Industrian, nekazaritzan eta eraikuntzan gorakada txikia izan da. Lehenean 3 lagun gehitu dira zerrendan eta berteze bietan lagun bana. Arloz arlo, azaro bukaeran 8 ziren langabeziak, industrian 157, eraikuntzan 46 eta zerbitzuetan 378. Aipatu bezala, sekulan lanik egin ez duten saila da behera egin duen bakarra, 27 lagunetik 20ra jautsi baita langabetu kopurua.

Zur nts l n k  
n r ntz r m n z tz n n h uzun  
z uk r k



nts l n k

ur l nts k n f r k ur l k u b n n k u z l y nts l n n  
l h n k u l z l z n h u m c r r l n v s n s t k r k  
s t u n s n n n u n k m s l k r k n z u z n r y  
l z n n s t l z r t k l n k u r u h n n r s t u t .



www.nafarrak.com



n u r n o t e d i z m z z a r  
n l z u r l n k n t r l z k n  
c o n t r l z t l u n s t u t .

> Zur t r k z u n u r l n n

NAFARRAK  
RURAL KUTXA

## GOIZUETA

## Larrialdietarako Anbulantzia Laguntzaile talderako bolondresak behar dira herrian

Koruak larunbatean eginen du jendaurreko aurkezpena

**Esteban AROTZENA**

Urteak igaro dira udalaren deialdiari erantzun paregabea emanez larrialdietarako bolondresak behar omen dira herriari behar duen bezalako zerbitzua eskaintzekotan. Informazioa nahiko luketenek edo, besterik gabe, ize-na eman nahi dutenek, bulego orduetan udal-txera joan beharko dute.

**Koruaren aurkezpena**

Entseiuak hasi eta bi hilabeteren burura kantatuko du herritarren aurrean 40 lagun inguruk osatzen duten koruak. Larunbat honetan,

eta ordu guztiak betetzeko hainbeste jende taldean. Beraz, bolondresak behar omen dira herriari behar duen bezalako zerbitzua eskaintzekotan. Informazioa nahiko luketenek edo, besterik gabe, ize-na eman nahi dutenek, bulego orduetan udal-txera joan beharko dute.

### Koruaren aurkezpena

Entseiuak hasi eta bi hilabeteren burura kantatuko du herritarren aurrean 40 lagun inguruk osatzen duten koruak. Larunbat honetan,



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

**Nekez lortu duen, Goizian argi hastian, Izarrak irtetzen du eta Olentzero kantatzu aurkeztuko du bere burua koruak larunbat honetan.**

abenduar 23, izanen da aurkezpena Ganbaran, arratsaldeko 20:00etan hasiko den emanaldiarekin. Goizuetakoaren ondoren, Ereñozuko Ozenki abesbatzak kantatuko du.

Udaran bueltan kultur taldeak luzatutako deialdiak inork uste ez bezalako erantzuna jasoz, ia 50 lagun elkartu baitziren korukide izan asmoz. Asteak igaro ahalean kopuru hori

zertxobait jeitsi egin da, baina hala ere, hasieran aipatu bezala, 40 lagun elkartzen dira, batz bestea, astean behin edo bitan Igaratza Apeztearen zuzendaritzapean. Alpagarria, baita ere, Imanol Kamio Ozenkiko zuzendaria ematen ari den laguntza.

### Neguko landaketak

Bertako haritza, urkia,

Douglas izeia, sequoya pinua, gerezia, zedroa, astigarra eta lizarra landarez berrituko ditu negu honetan udalak Gaintzingo 20 Hektarea eta Usurbideko Harriko beste 20.

Landaketa hauen aurrekontua 121.500 eurokoa da, %65a Nafarroako Gobernuak subentzionatuko duelarik. Irungo Jose Antonio Aginagaldere enpresak eginen du lana.

## ARESO

## Eluseder industrialdeko lanak Sukia enpresak egingo ditu

**Juana Mari SAIZAR**

Eluseder industrialdeko proiektuaren sustapena egin ondoren, Sukia enpresak baldintza hoberenak eskaini ditu eta bera izango da lurrraren truke obra guztia egingo duena. Beraz, udalak ez du inolako gasturik izango eta 60.000 metro koadrotik %1 udalarentzako gertzen da. Honetaz aparte, 500.000 euroko su-

bentzioa espero da Herrikan eta Industria departamentutik. Beranduago etorriko dira lantokien lizentziak eta beste. Ez da ohikoa truke hau eta denbora asko pasa dute Nafarroako Gobernuarekin akordio batera ailegatzeko.

### Pista moldatzea

Abelzantza departamentutik diru laguntza lortu du udalak 5 pista

konpontzeko: Filipeborra, Hiruñegi, Belaku, Eguarrea eta Erlatxe bidea. Azken honetan metro bat zabaldu behar dute bidea Semerotik hasi eta Azpikutxearaino. Honen kostoa 94.000 eurokoa da eta %80a subentzionatua izango da.

### Elizako teilatua

Elizako teilatua nahiko egoera txarrean da-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

**Sukia enpresak lurrraren truke egingo ditu Eluseder industrialdeko lanak.**

go baina orain nabarmendu da eliza barrenean paretak puskak erortzen ari direla. Due-la 27 urte teilatua eta

bobeda edo ganga berritu ziren, ganga erori egin baitzen. Baina paretak berritu beharrean pin-tatu bakarrik egin ziren.



## LEITZA



ARGAZKIA: PILAR FERNANDEZ

Suhiltzaileak goizaldean hasi ziren lanean eta eraikuntza eta udal langileen laguntza izan zuten.

## FLASH

### Asketa abesbatza Altsasun

Asketa abesbatzak Altsasuko "Iortia" Kultur Etxean kontzertua eskaini zuen. Emanaldi hau azken urteetako ohiturari jarraiki, Nafarroako Gobernuak Xabierko San Frantzisko egunez antolatu dituen kultur ekitaldien barnean eskainitakoa izan zen. Asketa abesbatzaren hurrengo emanaldia, Olentzero egunarekin batera izango da eta arrazoi hori tarteko, jada hasiak dira ondorengo egunetan hainbesteko garrantzia hartuko duten "Gabonetako Kantak" direlakoak ikasten eta entsaiatzen.

### Dabid Anautek liburu bat argitaratu du

Dabid Anaut leitzarrak "Txokotik zabalera" euskara eta euskarak berrekin eduki ditzakeen hainbat gai eta xehetasunen inguruan liburu bat argitaratu du. Liburuko hitzaurrea Kike Amonarriz tolosarrak egin du. Eztabaidarako eta hausnarketerako bidea ematea helburu garrantzitsuenetakotzat daukan liburu honen argitaratzailea Alberdania argitaletxea izan da eta Zerberri sailean dago sailkatua.

# Urak kalte handiak eragin ditu

Azaroaren 23ko euriteek ondorioak utzi dituzte herriko kaleetan

## Joseba URKIOLA

Azaroaren 23an urak protagonismo handia hartu zuen Leitza. Eguna argitzerako lehengo gasolindegian eta honen alboan dauden Tolatxenea, Orain Elkarte eta Nafarroako Aurrezki Kutxaren azpikaldean dagoen garajea urez gainezka baitzeuden.

Arazoaren erdigunea errotonda alboko gasolindegi zaharraren gunea izan zen eta bertan eman ziren eszenarik nabarmen eta gogoangarriak.

Urak eragin zezaketen arazoa egoki bideratze aldera, suhiltzaileak goizaldeko 3:00ak aldera hasi ziren lanean. Hauen ondotik erai-

kuntza enpresa bateko eskabadora batek eta udaletxeko langileak ere etengabe jardun zuten lanean.

Ustekabeko gertakari honen ondorio moduan, ura gonbidatu berezi izan zuten eraikinek nahikoa kalte jasan dituzte. Gasolindegi zaharra aurkitzen zen gunean ere, urak utzitako aztarnak egun asko eta askotan nahikoa nabarmenak izan dira herriarrentzat.

Urak sortutako ondorio hauei konponbide bat emate aldera, udala kaltetuak izan direnekin hartuemanetan ibili da eta jada gehienek beren inbentarioa osatuxea daukate edu-

kitako kalteen ordaina berreskuratzeko. Gasolindegi zaharraren gunean berriz, berritze lanak hilaren 11n hasteak ziren eta badirudi egun gutxiren buruan dena lehen bezala geratuko dela.

### Aurrerak aurrera egin du

San Frantzisko egunez eta gutxiak gustoko izaten duten eguraldizakar bezain beltza protagonista zela, Leitza Aurrera futbol taldeak hurrengo fasera igaro ahal izateko txartela lortu zuen.

Abenduaren 3an Universidad Pública de Navarraren aurka 3-0 ko garaipena lortu ondotik,

Aurrerak beste bi partidada jokatu behar izan ditu. Dena den garrantzia handiegirik izan ez duten partidak izan dira. Aurrera futbol taldea osatzen duten kideen burua 2007. urtean barneratzearekin batera, gorputz eta arima heldu beharko dioten hurrengo fasean baitago. Fase honetan beste zortzi talderekin batera Nafarroako Iparraldeko multzoa izendatutako ligaxka osatuko dute eta ligaxka honetan lehen hiruretan sailkatzeko zortea edukitzen badute, Leitza futbol taldea heldu den denboraldian goragoko maila batean ikuskatzeko aukera egonen da.

## BEROGAILU INDUSTRIALAK

TXIMINIARIK GABE · KERIK GABE · USAINIK GABE

### ADI !!

PABILIOI eta BILTEGIAK berotzeko gaitasuna du Deitu eta demostrazioa egitera joanen gara

**garsan**

GASOLIO edo GASOLIO Crekin "ADI ENPRESARIAK"

ZURE PABILIOI EDO BILTEGIA BEROTZEKO MODURIK ERRAZ ETA MERKEENA AURKEZTEN DIZUGU.



Banatzaille ofiziala: 948 631 626 / 607 402 873 · sistemas@distralum.e.telefonica.net

## BAZTAN

# Irurita-Elizondo saihebidia 2009ko udan irekitzea espero da

Lanak 2007ko urte akabailan hasiko dira

## Maite OTEIZA

Alvaro Miranda Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta komunikabideetako kontseilariak Baztango udaltxera egin zuen bisitan Irurita-Elizondo saihebidiaz mintzatu zen. Asmoa 2007ko akabailan obrekin hasia eta 2009ko udan irekitzea da. Obra honekin Irurita, Gartzain, Elizondo eta Elbeten pasatzen den trafiko handia herrietatik aterako da.

Arraiozetik Elbeteko gainera doazen lau aukeren artean, gehien konbenzitzen duena bigarrena da. Bere aurrekontua 9,55 milioi eurokoa da eta 5.962 metroko luzera du. Otsondon tunela egiteko asmoa bazen baina ideia momentuz baztertu da.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

## Iruritako frontenis txapelketa

Abenduaren 2an nesken frontenis txapelketako azken bi partida jokatu ziren Aranabia pilotalekuan. Lehenik hirugarren posturako lehia jokatu zen eta ondotik finala. Jende andana hurbildu zen eta giro ederrean bukaera eman zitzaion txapelketari. Hirugarren posturako partidari, M<sup>a</sup> Carmen Elizalde eta Edurne Argainek 30 eta 22 irabazi zieten Arantxa Apeztegia eta Leire Ericeri. Finalean Idoia Argain eta Begoña Goienetxek 30 eta 23 irabazi zieten Amaia Iñarrea eta Nerea Arretxeari. Akabaila emateko, parteharzaile guztiek, Olari jatetxean, afaria izan zuten.

## FLASH

## Arraiozko kanposantua

Aspalditik arraioztarrak eskatzen ari ziren kanposantuaren haunditzea errealitatea bihurtu da. Espazio aldetik arazoak zituzten, betea zegoelako eta ez zitzairen lekurik gelditzen hilobi berriak egiteko. Udalak eta Nafarroako Gobernuak, gastuen ardura hartu zuten %35 eta %65an. Aurrekontua 39.759 eurokoa izan da eta Mitxelena eraikuntzak empresa lanaz arduratu da.

## Lore Iraunkorra Amaiurren

Abenduaren 2an Amaiurren errota eta elizaren artean, Amaiurren gazteluan Nafarroaren independentziaren alde borrokatu zuten aldekoen omenez, "lore iraunkorra" eskultura inauguratu zuten, Baztango udaleko, Amaiurren herriko ordezkariaren eta amaiurren presentziarekin, bertzeak bertze. Eskultura, Josu Goia beratarrak egin du, eta 3.000 kilo eta 6,40 metro altuera du.

## Erratzuko mediku kontsulta berria

Erratzuko mediku kontsulta berria, Baztango goiza eraikuntzak enpresari eman diote, epe barnean proposamena aurkeztu zuen bakarria zelako.

## San Andres Azpilkuetan eta Zigaurren

San Andres eguna ospatu zuten Azpilkueta eta Zigaurren. Azpilkuetan goizean meza eta larunbatean elkarrean afaria antolatu zuten. Zigaurren, beranduaren ondotik, ermitan meza izan zuten.

**Gierresenea**  
OSTATU · JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
Iturriatz auzoa · Tfnoa: 948 592 043  
ORONDZ · MUGAIRI

Al Eusa  
629 438 765  
TAXIA

**ANTXITONEA**  
Trinketea  
Jatetxea - Ostalua  
Hotela - Trinketea  
Menu Bereziak  
Brazko Jaide karnika  
ELIZONDO  
Tel: 948 581 807 · 948 581 853

**ITURRALDE**  
pvc & aluminio  
9 667 264 025 · 948 581 967  
maxone@terra.es



## BAZTAN

# Herrietako alkateak Eguberri bezperan aukeratuko dira

Gehienek kargua uzteko borondatea erakutsi dute

M. O.

Igande honetan, Eguberri eguneko bezperan, hamabortz herrietan alkatea berritzeko batzarrea izanen da eguerdiko 12etan. Egun honetan aukeratutak izanen direnek, Errege egunean, urteko kontuak aurkeztearekin batera, agintaldiari hasiera emanen diote. Alkate berrien izendapen ofiziala egun horretan eginen da eta 2 urtetarako hartuko dute kargua.

Hasiera batean hamabortz alkateetatik, badirudi bakarrak due-la segitzeko asmoa, An-

tonio Elizalde Arizkungo alkateak, hain zuzen. Gainerako guzietan kargua uzteko asmoa dute. Ikusi egin behar, hartzeko prest dagoen norbait agertzen ote den.

### Almandozko eskola

Almandozko eskola berriko zimentazio lanetan ari zirela, harrizko pareta erori zen. Ondorioz, lanak gelditu egin dira. Berriz ere pareta nork egin eta ordaintzen duen erabaki arte, ez dira berriz eskolako lanean hasiko. Carlos Garaikoetxea, Balleko uda-



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Logotipoa merkatoriendako** Baztango Ostalaritza, denda eta Zerbitzuen Elkarteak badu bere logotipoa. Lehiaketara 21 lan aurkeztu ziren eta horien artean, Juan Angel Perotxenaren «Bertan» aukeratu zuen epaimahaiak elkartearen ordezkatzeko. Argazkian, Perotxena 300 euroko saria hartzen, Unai Arriaga elkartearen presidentearen eskutik, azaroaren 30ean.



leko hezkuntza zinegotziak aipatu duenez, «lehen egin zuen Sunbilla-

ko enpresa berak egi-tea espero dugu. Berriki, Amaiurren bertze hi-

ru pareta egitea adjudikatu diegu eta detaile polita litzateke».

**Eskisaroi**  
Jaimen Urrutia  
Tfnoa: 948 580 013  
ELIZONDO

**artesiaga**  
BULEGO ALTZARI ETA HORNIDURAK  
jaimen urrutia 57 | 31700 elizondo | navarra | www.artesiaga.com  
tel. 948 580 639 | fax 948 580 817 | artesiaga@artesiaga.com

egoi bardot obregozo arkitektoa  
679649789 elizondo - braulio iñarte 33, 1ºD - 31700  
948250371 Iruñea - Irabeko monastegia 62, 4ºC - 31011

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENTZIA

Santiago 15  
Tfnoa eta Faxa: 948 580804  
ELIZONDO

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

**ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK**  
Parrilan egindako haragi eta arrainak.  
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 - ARIZKUN

## ZUGARRAMURDI

# Lasai jostatzeko lekurik gabe gelditu dira haurrak herrian

Gurasoek parkeko tresnak frontoi zaharrera eramatea eskatu dute

## Margari eta Koro

Orain arte herriko haurrek trankil jostatzeko zuten toki bakarrarik gabe gelditu dira. Parkearen ondoko eremuan obretan hasi dira, horretarako parkearen zati bat hartu behar izan dute eta gelditu den bertze zatia ez da batere kondizionetan haurrak behar den segurtasunarekin egoteko.

Horrengatik gurasoek bi eskari egin dizkio- te Udalari: batean eskatzen da parkea tokiz aldatzea, fronton-zaha-

rrera tresna guztiak pasatuz; eta bertzean eskatzen da haurrek eskolako patio estalia erabili ahal izatea eguraldi txarra denean.

Iduriz, Udalak ongi hartu ditu bi eskari hauek eta orain gurasoek frontoi-zaharreko lanak noiz hasiko diren zai daude.

## Azketa jatetxea moldatzen

Azketa jatetxea itxita dago gan den hilabetearen erdi aldetik. Moldaketa lanak egin behar dituzte tokia zabal-



ARGAZKIAK: MARGARI

Haurrak lasai jostatzeko parkeko tresnak frontoi zaharrera eramatea eskatu dute. Azketa jatetxean moldaketa lanean hasi dira.

tzeko eta seguraski martxorarte ez da berriz edekiko. Bertzalde, "Armua" jatetxea ere bakantza sasoinetan sartu da eta Aste Saindurarte itxita egonen da.

Jatetxe kontuekin segituz, aipatu Herriko Etxean urte-xaharreko afaria antolatu dutela, eta ustez Zugarramurdi eta Urdazubiko jatetxe bakarra dugula hau gau huntarako espreski irekiko duena. Menuaren barnean zikiroa ere eskeintzen dute eta ez hasi telefonoaren bi-



la, ez baita tokirik gargero, dena hartuta dago.

## Mendi Federazioko txartela

Herriko mendizaleei "Mendi Federazio"ko txartela berritzeko garaia ailegatu zaiela oroi-

tarazten zaiela. Horretarako "Marixan" ostatuan beren izena eta 65 euro utzi behar dituzte. Txartela eskatzen den lehenbiziko aldia baldin bada, gainera karneta- ren fotokopia ere behar da. Guzti hau abenduaren 20a baino lehen egin behar da.

luis cestau baraibar	arkitekto teknikoa	leitza 607204485	lucésba @ msn.com
----------------------------	-----------------------	---------------------	-------------------------

gaztelu sol  
**iturgintza**  
kalefakzioa • saneamendua • gasa  
© 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

*Maderas*  
**GOMEN**  
Tel: 948 580 645  
Zaldubia Industrialden  
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerioak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

**ATM S.A.**

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.  
**Igantzioko Bentak**  
© 948 63 74 11

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.



*Baztandar guztiei desiratzen  
dizuegu eguberri zoriontsuak  
eta 2007 urtea onaroa izatea*



babezia



BAZTANGO MAGNA BKT

1945az geroztik

**MAGNA**

MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.

E-mail: [baztan@maglur.org](mailto:baztan@maglur.org)

## URDAZUBI

# Gau Iñara Gazteen Elkarteak arduradun berriak ditu

Javier Larralde da elkarteko lehendakari berria

## Fanny eta Aitor

Abenduaren 2an, urtero garai huntan egiten den bezalaxe, gazteen sozietateko afaria egin zen laugarren aldiz. 66 lagun bildu ziren afarian, hain zuzen ere, eta Iruñeko Onofre akordeoi-laria eta bere lagun tronpetaria izan genituen musikari, afaria eta ondoko besta animatzeko.

Afaria baino fiteago herriko gazteak bildu ziren, Gau Iñara Elkarte-ko arduradun berriak bozkatzeko. Bozkatze hau hiru urtean behin egiten da, beraz arduradun berriak hiru urtez izanen ditugu ordezkari.

Orain arte Gau Iñara elkarteko lehendakaria Cecilio Sansinena

izan da, lehendakariordea Patxi Iriarte, diruzaina Izaskun Mihura, idazkaria Javier Irigoien, eta bertze mahaikideak Igor Otheguy, Joxemi Bengoetxea eta Noel Eyheragaray. Eta egun, ordea, Javier Larralde dugu lehendakari, Ana Mari Bengoetxea lehendakariorde, Miren Sansinena idazkari, Julen Uharte diruzain, eta Noel Jaurena, Iñaki Alzueta eta Begoña Jaurena bokal.

## Alkerdiko bestak

Abenduaren 16an Alkerdi auzoko besta eguna ospatu da. Besta hau 2001. urtean berreskuratu zuten auzo huntak gazteek, beraz bes-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Bi urdazubiar Shak Xtreme proban

Azaroaren 24 eta 25ean gure herriko bi gaztek, Julen Uharte eta Noel Eyheragarayk parte hartu zuten Donibane Garazin hasi eta Sauveterre de Béarnen akautu zen lehiaketan. 50 talde abiatu ziren, 46 iritsi eta urdazubiarrek 10. postua lortu zuten. Bigarren egunean, nabegazioko proban erdi galduak ibili omen ziren, denbora pixka bat galduz. Hala ere zorionak biei, proba bukatzea, eta postu horretan gelditzea, meritu handikoa baita.

ta egin den seigarren urtea izanen da. Orain arte besta hau abenduaren 26an egiten bazen, Alkerdiko San Esteban santuaren eguna baita, aurtun abenduaren 16an ospatzea erabaki dute, bertzenaz Eguberriak bete-betean harapatzen baititu.

Egun huntan bazka-

ri ederra izan da Burkaitzea ostatuan, Francisco akordeoilariak animatua.

## Klaustroko erakusketa

Urdazubiko monastegiko klaustroan zegoen erakusketa, azaroaren 26an bukatu beharra zena, abenduaren

31ra luzatu da, abenduaren 2an France 3 telebista kateak egin zuen erreportaia baten aitzakian. Ibilbide turistiko bati buruzko erreportaia honek erakusketa hori barnatzen zuenez, hila bete baino gehixeago atzeratu da erakusketa-aren bukaera. Beraz, oraindik ikus daiteke.



KLINIKA ANBILATORIOA BEGIETAKO MIKROKIRURGIAREN  
OFTALMOLOGIA ZENTRUA

[www.luzclinic.com](http://www.luzclinic.com)



Frantsiako  
Osasun  
Agintariak  
kreditatua

### Oftalmologiaren beste ikuspegi bat

- 1986 Begietako mikrokirurgia osoa ospitalizatu gabe
- 1990 Kirurgia errefraktagarria Laser Excimer-arekin
- 1993 Anestesia topikoaren erabilera begi-lanbroen kirurgian
- 2001 Ikusmen nekatuaren kirurgia implante egokiorrak erabiliz
- 2004 Begi-lanbroen kirurgia mikro-ebakidurekin
- 2005 Laser tratamendu pertsonalizatua Topolyzer-ekin
- 2006 Malko-bideen tratamendua mikro-endoskopiarekin

Eskiroz, 31 - B solairuartera - 31007 IRUÑA - Tfnoa: 948 199 999

Juan de la Cruz, 5 - TEKNIA Zentrua - 20300 IRUN - Tfnoa: 943 660 150

Ferre Dal Baiza, 6 - ZA Layatz II - 64500 DONIBANE LOHIZUNE - Tfnoa: (0033) 559 51 84 00(FR) - 902 209 299 (SP)

IRUÑA
DONIBANE LOHIZUNE
IRUN



## SENPERE

# Laborariak beren ordezkariak hautatu behar dituzte

Urtarrilean, Paueko laborantza ganberarentzat

**Franck DOLOSOR**

Paueko laborantza ganberako bozak eginen dira urtarrilean. 21etik 31rat. Ordezkarriak izendatu beharko dira postaz igorriko diren gutunen bidez. Orain arte, kantonamenduko hiri buruko herriko etxeratik gan behar zen. Hemendik goiti, emaitzak ez dira beraz gehiago kantonameduka agertuko departamendu osokoak izanen direlako. Euskal kantonamenduetan Euskal Laborarien Batasuna nagusitu zen doi doietatik. «Bihar ere laborari» leloarekin 23 hautagaien zerrenda osatu du ELBk. Zerrendakideen artean ez da senperrarik baina bai herriarekin loturak ditu bi emazte, Mirentxu Doyhenart, Ibarrenen landare biologoak ekoizten dituen, eta Marie-Christine Elizondo urruñarra eta Kamietako alaba ttikia.

Bertzalde, Jean Michel Anxolabehere Baignorriko laborari euskaldunak zuzenduko du lehen aldikotz FDSEaren zerrenda. Geroa kalitatean dela dio ere FDSEAk. Zerrendakideen artean Philippe Martinon Kanbon Ezpeletako piperra egiten duena dago bertzeak bertze. Boza horien emaitzek agerian utziko dute bertzeak bertze laborariak zer dioten ELBk Ainizan sortu duen laborantza ganbera alternatiboaz.

## Téléthon

Téléthon eritasun genetikoaren aldeko elkartasun maratoiak arrakasta gaitza izan du aurtun ere. Orotarat, ehun miliun euro pasa bildu dituzte eritasun horien ikerketak diruz laguntzeko. Senpenterrek ere ongi erakutsi dute beren elkartasuna. Arretxea ikastegiko gazteek



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

## 30 eta 50 urtekoen biltzarrak

Aurtun 30 eta 50 urte betetzen dituzten senpenterrek elkarretaratzeak egin dituzte berriki. Deneri zorionak.

3.800 euro bildu dituzte eta Inharrean egin den mus txapelketan bertze 2.500 euro ukan dituzte téléthon bestakentzat. Horiek guzikiak kontuan hartu gabe aintzek telefonaz eta postaz eman dituztela bexen eskaintzak.

## Loto irabazlea Senperen

Suerte handiko lagun batek 29.698,20 euro irabazi ditu berriki Loto jokoan Hourcastagné familiaren saltokian. 5 zenbakiak eta zenbaki osagarria ere asmatu ditu.

## Konpostagailuak

Bizigarbia sindikataren konpostagailu berriak banatuko dituzte abenduaren 22an Elkarretxean. Herritarrek naturatik hurbil bizi dira itxura batean, 3 etxetik bitan baitira jadanik holako konpostagailuak.

SARA

# Olentzero abenduaren 16an etorri zaigu

Helduentzako dantza ikastaroa antolatu du Zazpiak Bat elkarteak

## Laetitia eta Sandrine

Urtero bezala, hiru eskoletako hurrek olentzeroren ongi etorria ospatu dute abenduaren 16an, larunbatarratsaldean, herriko plazan. Haurrak plaza inguruan ibili dira olentzerorekin, berak ere goxokiak banatu ditu, eta segitzeko zintzur bustitze bat egiten da arku azpian herriko etxeak eskainirik.

## Pilota partida Ziburuko kolegioko ikasleak laguntzeko

Azaroaren 25ean, Ple-

ka trinketean Waltary eta Poueyts aritu ziren Aroçarene eta Bielleren aurka. Ekitaldi hori antolatua izan zen Ziburuko ikastolako ikasleak laguntzeko. Asmoa du te urte bukaeran bidaia egitera Bartzelonara. Jende aintz hurbilduz, 250 sartze egin ziren Waltary eta Poueyts-ek irabazi zuten 50-46.

## Dantza ikastaldia

